



ehbildu
E. BILBO

GALDERAK UDALBATZARI

EH Bildu taldeko zinegotzia den **CARLOS RENEDO LARA** Bilboko Udalbatzaren Araudi Organikoaren 115 artikulua oinarri harturik, honako galderak egiten dizkio Udalbatzari, Ogasun saileko zinegotzi arduradunak, **MARTA AJURIA ARRIBAS**, idatziz erantzun dakion:

Magisteritza eskola zaharraren orubean klinika bat eta administrazio-ekipamenduko eraikin bat eraikitzeko emandako eta gaur egun iraungitako obra-lizentziari dagokionez.

1. Zenbatekoa izan da Obra eta Hirigintzako Lanengatik emandako zerbitzuen eta bestelako zerbitzu teknikoengatik kobratutako tasa?

2. Zenbatekoa izan da EIOZ?

3. Zein izan da aurkeztutako Exekuzio Materialaren Aurrekontua?

4. Lizentziaren iraungitzea dekretatzean tasaren dirua itzuli al da?

5. Lizentziaren iraungitzea dekretatzean itzuli al da EIOZ?

Bilbon, 2025ko urriaren 14ean

CARLOS RENEDO LARA

EH Bildu udal taldeko zinegotzia

**CARLOS
RENEDO LARA**

Firmado digitalmente
por CARLOS RENEDO
LARA [REDACTED]
Fecha: 2025.10.14
12:49:00 +02'00'

CARLOS RENEDO LARA

Galderaren sarrera erregistro zk. / Nº de R.E. de la pregunta:	625
Udal talde politikoa / Grupo político Municipal:	EH BILDU
Udaleko osoko bilkuraren data / Fecha de Pleno:	2025-10-30

Goiko erreferentzia duen galdera Hiri Plangintzako, Proiektu Estrategikoetako eta Espazio Publikoko Sailari zuzenduta dago, eta idazki honen bidez ematen zaio dagokion **ERANTZUNA**:

1. Gaur-gaurkoz oraindik ez dira igorri eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergari dagozkion ordainagiriak eta obregatik zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko tasa. Ordainagiriak, kasuaren arabera, lizentzia eman ondoren edo obrak amaitzean igorri ohi dira. Hala ere, beti espedientea artxibatu aurretik. Kasu honetan, zehazki, lizentzia ematearekin batera, obraren betearazpena fasetan zatitzeko baimena ere izapidetzen ari zen. Horregatik atzeratu zen espedientea Ogasunera bidaltzea eta EIOZ hori betearazpen-faseen arabera likidatzea. Gainera, auzo-elkarteen idazki eta baliabide ugari erantzuten ari ziren, azken zenbatekoak alda zitzaketenak.
2. Obraren gauzatze materialaren aurrekontua 16.438.965,83 eurokoa da.
3. Lizentzia iraungi ondoren, ordainagiria igortzeko unean obregatik zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko tasaren % 50 ordaindu beharko dute, 07 Udal Ordenantza Fiskalean jasotako tarifen arabera.
4. Ez da bidezkoa EIOZa ordaintzea, ez bada eraikuntzarik egiten.

En contestación a la pregunta de referencia, dirigida al Área de Planificación Urbana, Proyectos Estratégicos y Espacio Público. por medio del presente se emite la correspondiente **RESPUESTA**:

1. A fecha de hoy todavía no han sido girados los recibos correspondientes al Impuesto de Construcciones, Instalaciones y Obras y la tasa por prestación de Servicios por Obras. Los recibos suelen girarse, según el caso, una vez concedida la licencia o a la finalización de las obras. No obstante, siempre antes del archivo del expediente. En este caso en concreto, junto con la concesión de la licencia se estaba tramitando también la autorización de los faseados de la ejecución de la obra. Por este motivo se pospuso el envío del expediente a Hacienda y liquidar por fases de ejecución dicho ICIO. Además, se estaban contestando numerosos escritos y recursos de asociaciones vecinales, que podían alterar los importes finales.
2. El presupuesto de ejecución material de la obra asciende a 16.438.965,83€.
3. Tras decretarse la caducidad de la licencia, en el momento de girarse el recibo tendrán que pagar la cantidad correspondiente al 50% de la tasa por prestación de Servicios por Obras según las tarifas contenidas en la Ordenanza fiscal municipal 07.
4. No procede el abono de ICIO en tanto en cuanto no sea ejecutado edificación.

Eta horren berri ematen zaio Aizbea Atela Uriarte Osoko Bilkurako idazkari nagusiar, dagozkion ondorioetarako.

Lo que se traslada a los efectos oportunos a D^a. Aizbea Atela Uriarte, secretaria general del Pleno.

Bilbon, 2025eko urriaren 24an

En Bilbao, a 24 de octubre de 2025

HIRI PLANGINTZAKO, PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO ETA ESPAZIO PUBLIKOKO SAILEKO
ZINEGOTZI ESKUORDEA /
CONCEJAL DELEGADO DEL ÁREA DE PLANIFICACIÓN URBANA, PROYECTOS
ESTRATÉGICOS Y ESPACIO PÚBLICO



Sin. / Fdo.: **ASIER ABAUNZA ROBLES**